



TEKNIKARIAK ETA KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN II. PRESTAKUNTZA PLAN NAGUSIA GARATZEKO ARAUTEGIAREN 6. ARTIKULUAN JASOTAKO BANAKAKO LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDE GEHIGARRIAK

Aipatutako arautegiaren 6. artikuluan arautzen da TEKAZELEkoen prestakuntzarako banakako laguntzak ematea, bertako hirugarren atalean jasotzen dituen honako modalitate hauetan:

- a) Lanpostuarekin zerikusia duen prestakuntza
- b) Hizkuntza ikasketak
- c) Prestakuntza akademikoa
- d) Garapen profesionalerako prestakuntza, karrera profesionalari begira.
- e) Garapen pertsonalerako beste prestakuntza ekintza batzuk

Lehenengo prestakuntza plana indarrean egon zen bitartean eta egungoa indarrean den bitartean, interpretazio arazoak sortu dira interesatuek subentziorako aurkezten dituzten prestakuntza ekintzak egokiak diren ebazterakoan arautegiari begira. Sortutako arazoak argitu ahal izateko eta orokorrean aplikatu daitezkeen irizpide objektiboak ezartzeko, bildu zen 2016ko otsailaren 26an Prestakuntza, Hobekuntza eta Birziklatzerako Batzordeak eta zenbait irizpide eta argibide gehigarri erabaki zuen prestakuntza arautegian ezarritakoei gehitu eta beroriek argituz, besterik adostu bitartean, 2016 urteko deialdia eta hurrengoak ebazterakoan aplikatuko ahal direnak. Halaber, beste argibide bat gehitu zen 2016ko abenduaren 20ko bileran, 2017. urteari dagokion deialdia eta handik aurrerakoak ebazterakoan aplikatu beharrekoa, besterik adostu ezean. Honako hauek dira irizpide eta argibideak:

- ❖ **Laguntzen modalitateak.** Arautegiaren 6.4.4 artikulua dio eskarian espresuki adierazi behar dela zein modalitatetan egiten den (6. artikulua hirugarren atalean ezarritakoen artean). Kasuan kasu, aurkezten den prestakuntza ekintzak laguntza merezi duen ala ez erabakiko da, interesatuak eskarian adierazitako modalitatean, ez beste edozeinetan.
- ❖ **Hizkuntza ikasketak.** Problema sortu izan dira subentzionatu nahi zen ikastaroak lehenago subentziorik jaso ez bazuen, izan ere, hizkuntza prestakuntza jarraitua izaten baita eta ez zen erreza izaten bereiztea maila bera edo beste maila bat egin nahi ote zen, atzerriko hizkuntzak ikasteko ikastaroen edukiak eta ikastaro hauen irakasten dituzten gune ezberdinak oso heterogeneok direla kontutan hartuta.

Erabaki da hizkuntzak ikasteko deialdien kopurua mugatu egingo dela, hizkuntza eskola ofizialek onartzen dutenaren arabera. Ikastaro osoak badira (hau da, ikasturte oso batekoak, nahiz eta urtea baino laburragoa den aldi batean kontzentratu) eta 120/130 orduko iraupena badute, proposatzen da honako muga hauek ezartzea, banakako laguntzetara aurkezteko honako subentzio hauek lortzearen:

- deialdi bat A1 mailarako
- bi deialdi A2 mailarako
- hiru deialdi, guztira, A1 eta A2 mailetarako
- hiru deialdi B1 mailarako
- hiru deialdi B2 mailarako
- sei deialdi, guztira, B1 eta B2 mailetarako
- hiru deialdi C1 mailarako
- bi deialdi C2 mailarako
- bost deialdi, guztira, C1 eta C2 mailetarako

Beharrezkotzat jotzen denez denboran zehar birziklatze ikastaroak egitea ikasitako hizkuntzen jakintza maila mantendu ahal izateko, beste mota bateko ikastaro bat egiten bada dagoeneko eginda dagoen maila bat finkatzeko, ikastaro hori egiteko diru laguntza emango da, esate baterako, luzera laburragoko ikastaroak, solas egiteko ikastaroak edo subentzio hauetara



aurkeztutako azken ikastaroa egin eta denbora bat pasa bada.

Prestakuntza arautegiko 6.4.4 artikulua arabera eskaera egiterakoan aurkeztu beharreko egiaztagirik eta dokumentuak eskatzeaz gain, egiaztagirietan beti honako hauek ager daitezela eskatuko da:

- Iraupena (ordutan)
- Ikastaroaren hasiera eta bukaera datak
- Ikastaroaren maila (hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren arabera)
- Bertaratzea (emandako orduak eta jasotako orduak)

Hizkuntza prestakuntzaren aprobetxamendu edo bertaratzeari dagokionez, ulertuko da biak justifikaturik daudela baldin eta egindako mailarako etsamina ofiziala gainditzen bada edo laguntzaren helburuko prestakuntzaren % 80ra joaten bada, gutxienez.

Ez dira finantzatu irakasle partikularrek emandako ikastaroak.

Ez dira ondorio hauetarako kontuan hartuko Langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntzako Kabineteak antolatutako ikastaroak.

Arautegiak modalitate honen barruan atzerriko hizkuntzak ikasteko aukera hartzen du aintzat, zeinu hizkuntza barne. Ondorioz, ez da diruz lagunduko bide honetatik euskara ikasteko ikastarorik, euskararen eskumena duen errektoreordetzak mekanismoak baititu hizkuntza hori sustatu eta finantzatzeko.

- ❖ **Garapen pertsonalerako beste prestakuntza ekintza batzuk.** Egungo ekonomi egoera kontutan hartuta, erabaki da prestakuntza arautegiak prestakuntza akademikoari eskaintzen dion 6.3 c) artikuluan ezarritako subentzietatik kanpo, betebeharretakoren bat ez beteagatik geratuko litzatekeena besterik ez da lagunduko garapen pertsonalaren atalean, funtsean unibertsitate pribatuetan egindako ikasketak edo lizentziatura edo gradu ikasketak, eskatzaileak maila bereko titulaziorik duenean. Halaber, erabaki da atal honen bidez finantzatu direla UPV/EHUren edo beste unibertsitate edo erakunde publikoek irakatsitako udako ikastaroak.

Leioan, 2024ko irailaren 11an.

Sin. Maria Romero
Ikasketa, plangintza eta prestakuntza kabinete burua